# anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko maiatzaren 5a
15. urtea
675. alea
www.anboto.org
TOKIKOM


## Kultura

Iagoba Fanlo musikari donostiarrak zabalduko du Eleizetan zikloaren egitaraua, gaur > 15









Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren herri galdeketak egingo dituzte Gure Esku Dago elkarteek sustatuta. Durangaldean parte hartzeko eta nork bere erabakia libreki adierazteko deia egin dute. > 2-3

# Maiatzaren 7a, erabakitzeko eguna

Lehior Elorriaga

## Etapa laburrekin bizitasuna eman gura diote Emakumeen Birari

Asteon aurkeztu dute 30. Emakumeen Bira. Maiatzaren 17tik 21era izango da, eta bost etapetako batek ere ez ditu 100 kilometroak gaindituko. "Asperraldirik gabeko lasterketa bizi eta mugituak izan daitezela gura dugu", azaldu du Agus Ruiz antolatzaileetako batek. Lehenengo etapak Durangaldeko hainbat herri zeharkatuko ditu, maiatzaren 17an. > 17

## *"Europar Batasunean badago eleaniztasunaren aldeko konpromisoa"*



Jaione Arregi • Interpretea > 10







**Durangaldea** > 4
Bolumen handiko hondakinekin arazo larria dago Durangaldean

**Elorrio** > 8
24 orduko greba egin dute Wiside Telecom enpresan

**Zornotza** > 7
Bizkargiko borrokaldiak gogoratuko dituzte, domekan

**Abadiño** > 6
Fuensanta de Martos eta Abadiño senidetuko dira, gaur

## Herririk herri




Elorrion talde argazkia atera dute, jendea domekan botoa ematera animatzeko. Iñaki Lopez



Aitziber Irigoras alkate durangarrak eguaztenean eman zuen botoa.

# Demokraziaren jai handi bihurtuko da domekan Gure Esku Dagok antolatuko duen herri kontsulta

### Durangon, Zornotzan, Abadiñon, Elorrion eta Zaldibarren bozkatuko dute, Euskal Herriko beste 46 herrigaz batera

**DURANGALDEA** M.Onaindia

"Ez dugu beste inor mendean hartu nahi, etorkizuna hautatu, ez besterik", dio Gure Esku Dagoren abestiak. Horixe egin gura dute domeka honetan Euskal Herriko 51 herritan, tartean Durangon, Zornotzan, Abadiñon, Elorrion eta Zaldibarren ere. Momentuz, ez du balio juridikorik edukiko galdeketak, sinbolikoa izango da, baina herritarren nahia jakiteko ariketa bilakatuko da. Euskal estatu bateko herritar izan ala ez, hori da erantzun beharrekoa. Aipagarria da herritar askok boto aurreratua eman dutela; Durangon, adibidez, dagoeneko 400dik gora ziren partaideak eguaztenean. Tartean, alkatea bera ere bai.

Hala ere, esangura politikotik harago, demokraziaren jai handi bat bihurtuko da Gure Esku Dagok antolatutako herri kontsulta. Elorrion, esaterako, kanpaina amaierako jaia ospatuko dute gaur, 19:00etan. Ekitaldiaz aparte, musika eta jai-giroko eskaintza prestatuko dute. Domekarako ere egitarau luzea daukate: txistulariak 10:30ean, musika 12:30ean, dantzak 13:00etan, ekitaldia 14:00etan... 20:30ean amaiera ekitaldia egingo dute.



Zaldibarko alkate eta zinegotzi izandakoek agerraldia egin dute asteon.

### Ekitaldi nagusia

Durangon nazio mailako ekitaldi nagusia egingo da, 12:30ean, Ezkurdi plazan, eta Gure Esku Dago mugimenduko ordezkari Zelai Nikolas eta Angel Oiarbide bertan izango dira. Ostean, dantzak eskainiko dituzte, eta arratsaldean deneriko ekintzak egongo dira: puzgarriak, Senegalgo musika, Joseba Agirre eta Unai Abaunza musikariak, jazza, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldea, tonbola... 20:00etan amaituko dute jaia, botoen kontaketagaz.

### Zornotzan, karpan

Zornotzan karpa ipiniko dute Zelaieta parkean, eta 11:30ean hasita, hainbat musikari eta dantza talde pasatuko dira bertatik. Arratsaldean, Zaparrada batukada, zumba saioa eta Oxabiren erromeria edukiko dituzte herritarrek jai-girorako.

### Abadiñon, herri kirolak

Abadiñoko Txanporta plazan umeentzako tailer zein puzgarriak prestatuko dituzte, 12:00etan eta 17:00etan, eta musikarik ez da faltako eguerdian. Traña plazan, ostera, herri kirol saioa ikusi ahalko da, 12:30ean, eta gero kantu kalejiran irtengo dira. 17:00etan umeentzako tailerrak eskainiko dituzte, eta 18:00etan txokolatada.

Zaldibarren bertsolariek eta dantzariek parte hartuko dute, 12:00etan hasita, eta eguerdian bazkari herrikoian batzeko deia egin diete herritarrei.

Beraz, botoa emateaz aparte, ondo pasatzeko egun bat izango da domekakoa; "jende zoriontsua izan dadin, herri libre batean", kantuak dioen lez.

**MAIATZAK 7:**
BOTOA NON EMAN

**DURANGO**
- Ezkurdin, 09:00etatik 20:00etara
- Herria auzo elkartean, Tabiran, Ibaizabal auzunean eta San Fauston, 09:00etatik 14:30era

**ZORNOTZA**
- Zelaieta parkean, 09:00etatik 20:00etara
- Boroa, Larrea, Etxano eta Euba auzoetan goizean bakarrik

**ELORRIO**
- Herriko plazan, 09:00etatik 20:00etara

**ABADIÑO**
- Traña eta Txanporta plazetan. 09:00etatik 20:00etara

**ZALDIBAR**
- Udaletxe plazan, 09:00etatik 20:00etara

**anboto** komunikabideak
**Bixente Kapanaga, 9**
**48215 Iurreta - Bizkaia**
**Tel.: 946 816 558**
**Erredakzioa:** 946 232 523
**Publizitatea:** 946 217 902
publi@anboto.org

**2017ko maiatzaren 5a**
**14. urtea - 675. alea**

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 11.500 ale

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



**Andoni Aizpuru**
Elorrio, aurkezlea

## “Emaitza polita izateko esperantza dugu”

**Zer sentsazio duzu?**
Gure Esku Dagoko dinamikan hasieratik parte hartu dut, Elorrion taldea sortu zenetik. Galdeketa egin ahal izatea lan horren buruketa da, lehen urrats garrantzitsu bat. Oso motibatuta nago.

**Zubiak eraikitzea izan da herri askotako helburua.**
Elorrion asko zaindu dugu ahalik eta aniztasun handiena lortzea. Jende bat erakartzea ia ezinezkoa da, baina emaitza polita izateko esperantza dugu. Bestalde, datuen irakurketa kontuz egin beharrekoa da. Meritu handiko emaitzak dira beste herrietan lortu direnak.

## “Herrikoia izanik, posible izan daiteke”

**Galdeketa publikoki babestu izan duzu.**
Bai. Ahal izan dudan neurrian parte hartu izan dut. Durangaldean iragarki bat egon da, eta hor ahotsa ipini dut, adibidez. San Agustinen egondako aurkezpen batean ere egon nintzen.

**Ekimen herritarra da.**
Erakundeena barik bultzada herrikoia izanik, posible izan daiteke batera abiatzea, mesfidantzak gaindituta. Bizitzeko eskubidea alde batera utzita, zer oinarrizkoagorik pertsonari gura duen bidetik abiatzen uztea baino?

**Felix Arkarazo**
Durango,aktorea





**Oihana Azkorbebeitia**
Abadiño, korrikalaria

## “Partaidetza handi-handia espero dut”

**Partaidetza handia egongo dela uste duzu?**
Uste dut galdeketa inportantea dela gizarteak zer gura duen ikusteko. Gerora zer egin daitekeen ikusteko baliokodu. Parte-hartze handi-handia espero dut, baina jende bat ez dela ezertaz enteratu ere uste dut. Batzuk beste *satelite* batean bizi dira [barrez]. Badakigu sinbolikoa dela, baina ea jende askok bozkatzen duen.

**Ekimena jarraitzen duzu?**
Umeak, beharra, lasterketak... denboraz eskas ibiltzen naiz, baina egin izan diren ekintzetan ahalegindu izan naiz parte hartzen.

## “Aukera aprobetxatu beharra dago”

**Zerk bultzatu zaitu kontsultan parte hartzera?**
Hori baino gauza demokratikoagorik ez dago, ezta? Horrelako gauza bat erabakitzeko aukera izatea oso polita da. Aukera aprobetxatu beharra dago. Ea apurka-apurka nahi dugunera bultzatzen dugun bide hau.

**Zer iritzi duzu dinamikaz?**
Gure Esku Dago dinamikoa da, eta gauza politak ikusten dira. Zornotzan herri kirolen festa bat antolatu zuten, eta lau kirolari ibili ginen. Giro polita sortu zen. Giza katean ere egon nintzen.

**Zigor Iturrieta**
Euba (Zornotza), korrikalaria





**Leire Bilbao**
Durango, idazlea

## “Herriak erantzunak gura dituela uste dut”

**Zergatik parte hartuko duzu domekan? Zerk motibatzen zaitu?**
Erabakitzeko eskubidea izatea da galdeketan parte hartzera motibatzen nauena. Asko dago norbere esku, eta, sikeran, erantzun bat emateko aukera izateagatik bakarrik merezi du galdeketan parte hartzea.

**Zelan baloratzen duzu mugimendua eta izandako erantzuna?**
Herriak galderak dituela eta herriak erantzunak gura dituela iruditzen zait. Herria martxan dabilen seinale ona dela uste dut.



Zornotzako elkarte askotako kideek babesa erakutsi diote galdeketari.



Abadiñon, hainbat gazte kontsultan parte hartzeko deia egiten.

ibaizabal
IKASTOLA
- Konfidantzan, ikastola -
idazkaritza@ibaizabalikastola.eus · Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus
BATXILERGOA
Aurrematrikula epea:
Maiatzaren 2tik 12ra
Matrikula epea:
Ekainaren 20tik, uztailaren 6ra
HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO ZIKLOA
Ate irekien eguna:
maiatzaren 24an, 18:30ean


# Bolumen handiko hondakinekin “arazo larria” dago eskualdean

Amankomunazgoak zabor bilketaren inguruko datuak eman ditu; %25 birziklatzen da bakarrik oraindik, eta gainerako %75a errefusa da



Uriarte, Mandaluniz eta Lopez, atzo, Behargintzan eskainitako prentsaurrekoan.

DURANGALDEA M. Onaindia

Amankomunazgoak prentsaurrekoa eman zuen atzo, hondakin bilketaren inguruko datuak emateko eta herritarrak birziklapenera animatzeko. Izan ere, batzen den hondakin kopuruaren %25 birziklatzen da bakarrik oraindik; gainerako %75a errefusa da. Horrez gainera, beste gai bat ere mahai gainera atera zuten arduradunek, bolumen handiko hondakinena. Ismene Mandaluniz teknikariaren arabera, “arazo larria” dago arlo horretan Durangaldean.

Eguaztenetan batzen dituzte hondakin horiek. Hileko lehen eta hirugarren eguaztenetan, Garai, Izurtza, Mañaria, Matiena eta Zaldibarren batzen dute; hileko bigarren eta laugarren eguaztenetan Atxondo, Elorrio eta Muntsaratz zein Zelaietan. Iurretan, eguaztenero pasatzen da kamioia. Herritarrek ez ei dute egutegia errespetatzen, eta horrek arazoak sor ditzake zebra-bideetan, adibidez. “Espaloian uzten dugun sofa batek autoen ikusgaitasuna murriztu dezake; edo haizearen eraginez, utzi dugun hozkailua errepidera jausi ahal da”, ohartarazi du Mandalunizek. Bestalde, gogoratu du baserri inguruetakoek aurretiaz abisatu behar dutela.

## Organikorako poltsak

Europan %50ean ezarri dute birziklapen tasa egokia, eta, beraz, “eskualdeko datua” hobetu egin behar da”, Augusto Uriarte teknikariaren ustez. Aitor Lopez presidenteak organikoaren kanpainan parte hartzeko deia egin du; aurten, poltsa konpostagarriak doan emango dituzte. Momentuz, 5.000 lagun (biztanleen %25 inguru) dabiltza kontainer marroia erabiltzen edota autokonpostajea egiten. 94 623 22 telefonoan eman ahal da izena, baita zalantzak argitu ere.

# Errefuxiatuen egoera salatzeko, kontzentraziora deitu dute biharko

Gernikako ekitaldien ostean, plataformako kideek “gogotsu” daudela diote

DURANGALDEA J. Guenetxea

Joan den asteburuan errefuxiatuen alde antolatutako ekimenak milaka lagun bildu zituen Gernikan. Durangaldetik zutabean joandako herritarrek beraien alea jarri zioten ekimenari. Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak joan den asteburuko balorazio positiboa egin du. Goizean goizetik abiatutako lagunei Zornotzan trenez joan zirenak bildu zitzaizkien. “Talde moduan ez dugu balorazio orokorrik egiteko astirik izan, baina sentsazio oso onekin itzuli ginen”, azaldu du Sabino Bilbao plataformako kideak. Gaineratu duenez, “behin Muxikara helduta batutako jendetza ikustea zoragarria izan zen”. Gernikan azkenengo kilometroa “hunkigarria” izan zela aitortu du Bilbaok.

Asteburuan Gernikan izandako ekitaldiaren ondoren, aurrera begira jarri da Durangoko plataforma. “Joan den asteburua motibagarria izan da aurrera egiteko. Indar izugarria eman digu”, diote plataformako kideek.

## Zapatuko protesta

Hileko lehenengo zapatuetan OEE plataformako kideek kontzentrazioa egiten dute Durangon, 12:00etan, Andra Mariko elizpean. Helburu bikoitza dute: sentsibilizazioa eta salaketa. Bilbaok dioenez, plataformako kideek badakite errefuxiatuen egoera ez dela egun batetik bestera konponduko, beraz, epe luzera lan egiteari garrantzitsua deritzote. “Hilean behin ekitaldiak antolatu eta kontzentrazioa mantendu gura dugu”.



Gernikara bidean hainbat lagun pasatu ziren Zornotzatik joan zen asteburuan.


Durangaldeko zutabean ehunka lagunek parte hartu zuten.

# Markinara eta Ondarroara bidesarien aurka

DURANGALDEA J.Guenetxea

A-8 peajerik ez plataformak mobilizaziorako deia egin du biharko, maiatzak 6. Tabirako igerilekuetako aparkalekuan jarri dute hitzordua, 11:00etan. Handik, autoen karabanan Markinara eta Ondarroara joatea izango dute helburu, “karabana baketsu, alai eta aldarrikatzailean”. Antolatzaileek azaldu dutenez, Markinako eta Ondarroako bizilagunek ere bidesaria ordaindu behar dute Bilbora AP-8tik joateko.

Plataformako kideek diotenez, “ibilbidean zehar herri hauetan bizi diren pertsonek Bilbora doan joatea aldarrikatuko dugu, Mungian, Balmasedan edo Muskizen bizi balira moduan. Herri hauek Bizkaiko hiriburuagaz ondo eta doan komunikatuta daude”.







Hamadako Izarrak elkarteko hamaika kide joan dira, zortzi eguneko bidaian.

# Saharako andren jabekuntzan laguntzeko proiektua martxan

## Pizzeria bat muntatuko dute Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetan; bertan lan egingo duten emakumeekin batzartu dira

**DURANGALDEA** M. Onaindia

Hamadako Izarrak elkarteak ume sahararrei aterpetxea eskaintzen die udan, eta euren zeregin nagusia hori izan arren, aurten beste egitasmo bati ekin diote. Tindufeko (Aljeria) kanpalekuetan dauden emakumeen jabekuntzan lagundu gura dute, eta, horretarako, pizzeria bat muntatuko dute. Aste Santuan bertan izan dira elkarteko hamaika kide, eta proiektua martxan ipintzeko lehen pausoak eman dituzte. Bertan lan egingo duten lau emakumeekin batzartzeko aprobetxatu dute.

Uda ostean hasiko dira jatetxea eraikitzen, Garazi Etxebarriaren esanetan. Orain hasi gura zuten, baina materiala ez da garaiz heldu. Izan ere, Alacanten (Herrialde Katalanak) eta Aljerian atxikita egon da martxo hasieran Durangaldetik irtendako kamioia. Euren materialaz gainera, ohiko bilketa kanpainako 23.600 kilo elikagai eta 400 kilo arropa ere badaude kamioian. Datozen egunetan ailegatzea aurreikusten dutela azaldu du taldekideak.

Begiraleek hango egoera ezagutzeko ere baliatu dute bidaia. Emakumeen Biltzarreko kideekin batu dira, hezkuntza bereziko eskolak bisitatu dituzte, eta udan etortzen diren umeekin eta senideekin ere egon dira. "Esperientzia oso ona izan da, eta errepikatzeko gogoz gaude denok", dio Etxebarriak.

# Tren erabiltzaileei dirua bueltatzeko prest daude

**DURANGALDEA** M.O.

Berrizko eta Zaldibarko tren erabiltzaileei bueltatu egingo diete dirua, eremu aldaketaren kalteagatik. Bizkaiko Garraio Partzuergoak udalei jakinarazi dienez, herri biak maiatzaren 12an bueltatuko dira laugarren zonaldera, eta bonuak dituzten erabiltzaileei egunotan aldaketagatik sortutako gainkostua bueltatzeko prest dago partzuergoa.

> Maiatzaren 12an baino lehen ateratako bonuak dituztenek erreklamatu ahalko dute

Maiatzaren 12a baino lehen ateratako bonuak dituztenek erreklamatu ahalko dute. Mezu bat bidali beharko dute *barikctb@cotrabi.eus* helbidera, ondorengoak erantsita: titulua kargatuta duen txartelaren titularraren izen-abizenak, errolda ziurtagiria eta titulua kargatuta duen Barik txartelaren zenbakia.

Zonifikazioaren erabakia behin-behinekoa da, Bizkaiko Mugikortasunerako Agintaritzak azterketa bat egin bitartekoa. Udalek esan dute horren jarraipena egingo dutela, eta eskerrak eman dizkiete herritarrei mobilizatzeagatik.

# Herrian kontsumitzeko kanpaina berria

**IURRETA** A.B.

Iurretako hiri-komertzioari eta ostalaritzari bultzada bat emateko asmoz, *Herriko dendetan erosi; zuk irabazten duzu, Iurretak irabazten du* izeneko kanpaina abiatu du udalak Dendak Bai Durangaldeko merkatari elkarteagaz lankidetzan. Horren baitan herriko establezimenduetan 30 eurotik gorako erosketa egiten duten pertsonen artean diseinuzko 250 poltsa oparituko ditu udalak maiatzean eta ekainean —hilabete bakoitzean poltsa bat eskuratu daiteke pertsonako—.

> Herriko dendetan 30 eurotik gorako erosketa egiten dutenen artean diseinuzko poltsak oparituko dituzte

Hilaren amaieran 100 euroko deskontu txartelen zozketa ere egingo da erosketak egin dituztenen artean, nahiz eta poltsa lortzeko aukera galdu. Maiatzean eta ekainean egongo da martxan kanpaina, edo izakinak amaitu arte. Arduradunek azaldu dutenez, maiatzaren zozketa ekainaren 2an egingo dute, eta ekainekoa, uztailaren 4an. Udaletxean egingo da zozketa, eta irabazleari telefonoz jakinaraziko zaio.

# Euskaraz irakurtzeko kanpaina, martxan

**ATXONDO** M.Z.

Atxondoko liburutegian euskaraz irakurtzeko kanpaina martxan da Euskaltzaleen Topagunearen eskutik. Irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen egitasmoari esker udal liburutegian liburu bat hartu, irakurri eta fitxa bat bete ostean, erosketa txeke bat jasotzeko aukera dago.

Liburutegian jasotako erosketa-txekeari esker liburuak %35eko beherapenagaz erosteko aukera izango dute herritarrek. Horrez gain, hile bukaeran udal liburutegian 30 euroko balioa duen txekea zozkatuko dute.

*Irakurri, gozatu eta oparitu* lema duen kanpaina maiatzaren 31n bukatuko den arren, liburutegian jasotako txartelak ekainaren 10era arte erabili ahalko dira.

# KZ Gunea itxi egingo dute ekainean

**ZALDIBAR** I. E.

Gobernu taldeak azaldu duenez, "kultura eskaintza hobetu eta zerbitzu eta baliabideak ordenatzeko", hainbat aldaketa egingo dituzte udaleko kultura eta kirol arloan. Udal liburutegiko zerbitzua indartzea da aldaketen helburuetako bat.

"Azken urteotako erabiltzaile kopuruaren etengabeko jaitsiera kontuan hartuta", KZ Gunea itxiko dute, ekainean, eta ordenagailuak liburutegian egongo dira aurrerantzean erabilgarri.

Aldaketaren ostean, orain arte KZ Gunean lan egin duen beharginak liburutegian egingo du bere lana. Liburutegiko arduraduna, bestalde, kultura eta kirol arloko lan administratiboetan eta jarduera kulturalen antolakuntzan ere arituko da, ekainetik aurrera .

# Durangaldeko ondarea aztergai, berbaldian

**GARAI** M.O.

Herriko nagusien elkarteak antolatuta, Durangaldeko ondarea aztergai izango dute datorren astean Garain. Hain zuzen ere, berbaldi bat eskainiko dute maiatzaren 11n; 17:00etan hasiko da, kultur etxean. Beraz, gure inguruaz gehiago jakiteko aukera edukiko dute.

> Berbaldi bat eskainiko dute maiatzaren 11n; 17:00etan hasiko da, kultur etxean

Atzo bertan ere ekintza kulturala eduki zuten herriko jubilatuek. Amankomunazgoak antolatuta, Bilboko Arte Ederren museora joan ziren, erakusketa bat ikustera.



# Jaengo Fuensanta de Martosegaz senidetuko da Abadiño, gaur

## Herri horretako ordezkariek Abadiño bisitatuko dute asteburu honetan



De Norte a Sur taldeak ikuskizuna eskainiko du, domekan.

**ABADIÑO** Jone Guenetxea
San Prudentzio jaien bigarren asteburua abiatuko dute gaur, Matienan. Egitaraua zabaltzeko, Abadiño Jaengo Fuensanta de Martos herriagaz senidetuko da. Ekitaldia Errota kultur etxean izango da, 19:30ean. Industrializazioaren eraginez, Jaengo herri honetatik jende ugari etorri zen Abadiñora, eta migrazio hori dago ekitaldi instituzional honen oinarrian. Jose Luis Navarro Abadiñoko alkatea ere handik etorri zen familiagaz, urtebete zeukanean.

### DJ ekitaldia

Matienako jaietan herrikoa den Danny Meip DJaren kontzertuak zeresan handia eman du. Txosna Batzordeak ekitaldi hori bertan behera uzteko eskatu dio udalari, DJ honek "jarrera arrazista eta sexistak" dituen Bilboko diskoteka batean lan egiten duela argudiatuz. Udalak ekitaldiari eutsi arren, gaurko aurreikusita zegoen kontzertuan parte ez hartzea erabaki du Danny Meip DJak. "Diskoteka batean beste edozeinetan lez lan egiten duen gazte bat matxakatu dute", esan du minduta abadiñar gazteak sare sozialetan. Egoeraren aurrean, Txosna Batzordeak prentsa oharra kaleratu du. Idatzian diotenez, "momentu batean ere ez gara inoren aurka joan, eta, hortaz, erabat ezeztatzen ditugu azken egunotan leporatu gura izan zaizkigun jazarpen egoerak". Gaineratu dutenez, "ez da momentu erraza, ez guretzat, ezta Danirentzat eta bere gertukoentzat ere, eta hau ez da izan inondik inora gure helburua".

Bestalde, urte askoan jaietan parte hartu barik egon eta gero, De Norte a Sur taldeak ikuskizuna eskainiko du domekan, 17:30ean, eskolako aterpean. Fandangoak, sevillanak, runbak... denetarik eskainiko dute taldeko dantzariek.

Jaiei amaiera emateko, Donien Atxa kenduko dute. Txopoa jasotzerakoan ikusleen artera jausi ostean, ekitaldi honek ere hautsak harrotu ditu aurten Matienako jaietan.

# Sapuetxe ez botatzea, negoziatzeko baldintza

## Udal aurrekontuaz iritzia eman du EH Bilduk

**DURANGO** M.O.
Sapuetxe botatzeko diru partida kentzea aurrekontuak negoziatzeko baldintza lez ipini du EH Bilduk. Aurrekontu zirriborroan, gobernu taldeak 425.000 euroko partida proposatu du eraikin okupatua eraisteko, koalizioak informatu duenez. Jabetza pribatukoa da, eta ez du begi onez ikusi diru publikoa erabiltzea, "herritarrek horrenbeste beharrizan dituzten uneotan eta inbertsioetarako apenas dirurik dagoenean". Gainera, eraikina "autogestio bidez eskaintza kulturalez beteta" dagoela gogoratu du koalizioak.

Hala ere, ez da hori negoziaketei ezarritako baldintza bakarra. Iaz euren abstentzioak ahalbidetuta onartu ziren aurrekontuak, eta orduko proiektuak betetzea da bigarren baldintza.

Baldintza biak onartuz gero, lau proposamen eskainiko ditu EH Bilduk. Etxe hutsak betetzeko plan integral bat; tren geltoki zaharreko eremua aisialdira eta sorkuntza kulturalera bideratzea; Landako Gunea urteko 365 egunetan zabaltzea; eta baserritarren azokaz hausnartzea, merkatu plaza kontsumo lokalerako eta aisialdirako gune erreferentzial bihurtzeko.



EH Bilduko kideak, eguaztenean, prentsaurrekoan.

# Udaletxea eraberritu eta bulego teknikoak lekualdatuko dituzte

## Udalak esleitu ditu dagoeneko abadetxean bulego teknikoa atontzeko lanak

**ABADIÑO** I.E.
Abadiñoko Independienteen eta EAJren botoekin onartu zuten, joan zen asteko osoko bilkuran, udaletxeko obra egin ahal izateko 145.000 euroko kreditu gehikuntza. Udaletxean igogailua ipintzeko inbertsioa egin ahal izateko, udal aurrekontuan jasota zeuden 148.000 euroei gehituko diote aipaturiko zenbateko hori. Kreditu gehikuntza hori onartuta, "igogailua ipinita, udaletxeko irisgarritasuna hobetzeaz gainera, eraberritze orokorra egingo dugu eraikinean, eta altzairu berriak erosiko ditugu", azaldu du Jose Luis Navarro alkateak.

Kreditu aldaketa horri lotuta, udal gobernuari aurreikuspen falta egotzi zion Mikel Urrutia EH Bilduko bozeroaleak joan zen martitzeneko udal batzarrean. "Udaleko batzordeetan %20ko murrizketak egin dituzte eta herriarentzat estrategikoak diren beste hainbat arlotan —saneamendu sarean edo Zelaietako irisgarritasuna hobetzeko proiektuan— ez da ezelako inbertsiorik egiten", kritikatu zuen Urrutiak. "Aurrekontuak egiteko moduaz zalantza sortzen digute halako kreditu aldaketek", azpimarratu zuen.

> J.L. Navarro: "Udaletxearen eraberritze orokorra egingo dugu, eta altzairu berriak ere erosiko ditugu"

EH Bilduren kritikari erantzunez, "udal aurrekontua aurreikuspen bat da, eta urtean zehar hau bezalako beharrizan eta proiektu berriak sortzen dira", azpimarratu zuen Jose Luis Navarro alkateak.

Udaletxean igogailua ipini eta eraikin horren eraberritze orokorra egiteaz gainera, San Trokaz kaleko 2. zenbakian dagoen abadetxea udaletxeko hainbat zerbitzu hartzeko atontzea da Abadiñoko Udalak 2017rako onartu zuen aurrekontuak jasotzen duen beste inbertsio nagusia. Udaleko bulego teknikoak eramango dituzte abadetxera. Eraikin horren hiru solairutan atonduko dituzte, besteak beste, harrera-gunea, idazkaritza eta artxibategia. Abadiñoko Udalak 253.045 euroko aurrekontua gorde du abadetxeko obra horretarako.

Udaletxearen eraikineko eta bulego tekniko berria egiteko lanak irailerako amaituta edukitzea aurreikusten du udalak. Jose Luis Navarro alkateak asteon adierazi duenez, abadetxeko lanak esleitu ditu dagoeneko Abadiñoko Udalak.

# Gaztetxoek eskatutako tirolina prest Mainondon

## Bolaleku parean jolasgune bat ere egingo dute

**OTXANDIO** J.D.
Mainondon gaztetxoentzako tirolina berri bat erabilgarri dago. Herri-ola egitasmotik landu duten gaia da, eta udalak gauzatu du. Iaz herrian zeren falta sumatzen zuten galdetu zieten Otxandioko umeei, eta sarritan errepikatu zen erantzunetako bat tirolina izan zen. Mainondoko eskola ingurua —frontoiaren aurreko aldea— oinezkoentzako gunea da. Duela hilabete batzuk Hezkuntza komunitateak (irakasleek, ikasleek...) erabaki horixe hartu zuen.

Gaztetxoei egindako galdeketatik azaleratutako beste beharrizan bat material naturalekin egindako jolasgunea da. Bolalekuaren pareko parketxoan jarri gura dute, eta arduradunak hainbat aurrekontu aztertzen dabiltza.



Otxandioko umeak tirolina berrian olgetan.



Bizkargi Egunak ehunka lagun batzen ditu urtero.

# Bizkargi mendiko borrokaldien 80. urtemuga gogoratuko dute

Bizkargi Gogoratuz elkarteak egitarau berezia antolatuko du domekarako

**ZORNOTZA** Jone Guenetxea
Zornotza, Larrabetzu eta Morga batzen dituen Bizkargi mendia gune historikoa da. Tontor horretan, eusko gudariek tropa frankistei aurre egin zieten 1937an. Gernikako bonbardaketaren eta Bizkargiko borrokaldien 80. urteurrena dela-eta, Bizkargi Gogoratuz elkarteak egitarau berezia prestatu du. Elkarteko kideek azaldu dutenez, euskal gudarosteak Bizkargi behin eta berriro galdu eta berreskuratu zuen 1937ko maiatzean. "Gure datuen arabera, ehun hildakotik gora izan ziren han", dio elkarteak. Frankismo garaian Bizkargi "askatasunaren ikur" bilakatu zela gogoratu dute elkarteko kideek. Debekatuta zegoen arren, bertan jartzen zuten ikurrina. Gaur egun, "oroimena, justizia eta egia" aldarrikatu gura dute Bizkargiko tontorrean antolatzen dituzten ekitaldien bidez.

### Egitarau zabala

Maiatzaren 7an, 11:00etan abiatuko da egitaraua Bizkargiko tontorrean. Musika animazioaren ondoren, 12:00etan, memoriaren ekitaldia antolatuko dute. Adarra, txalaparta eta

> Bizkargi Egunean, Etxanoko Nagusiek elkarteko txuzoa sartuko dute, ohiturari eutsiz

txistua joko dute ekitaldian. Memoriaren berbaldia etorriko da gero. Etxanoko Nagusiek txuzoa sartuko dute, ohiturari eutsiz. Bertsolariekin eta Enetaran bikotearen kantaldiagaz amaituko dute ekitaldia. Ondoren, 13:15ean, Koldo Etxebarria aita-seme trikitilariek erromeria -giroa emango diote eguerdiari. Zornotzako Zelaieta parkeak hartuko ditu arratsaldeko ekitaldiak. 18:00etan, 1937 maiatza oroituz ekitaldia izango da. Ondoren, Oxabi taldea arituko da Gure Esku Dagok bultzatutako galdeketagaz bat eginez.

## Txupinazoagaz abiatuko dituzte Bernagoitiko jaiak, gaur

**ZORNOTZA** J. Guenetxea
Zornotzako Bernagoitia auzoan jaiak hasiko dituzte gaur, 20:30ean, txupinazoa jaurtita. *Pikoteo* herrikoia prestatuko dute txokoan, eta, ondoren, Margo eta Rasta sin Pasta Band System taldeen txanda izango da. Bihar, berriz, Munduko dantzen inguruko tailerragaz abiatuko dute eguna. Bazkari herrikoiaren ostean, jolasak eta bolo txapelketa izango dira. Eguna Mad Chicken taldearen musikagaz amaituko dute.

Domeka eguerdian, txistulariak, aizkolariak eta Beñat Ugartetxea eta Felipe Zelaieta bertsolariak arituko dira. Pilota partidua, bildots eta otarraren zozketa, eta igel-toka eta txapel jaurtiketa ere egingo dituzte.

Aurtengo nobedadeetako bat auto zaharren lehenengo igoera eta erakusketa izango da. Maiatzaren 13an egingo dituzte igoerak, 16:35ean eta 17:55ean. Autoen erakusketa plazan jarriko dute.





Victor Pozas hizlaria iazko berbaldi zikloan.

# Kolonbiako bake prozesuak zabalduko du hitzaldi zikloa

Hiru berbaldik osatzen dute Kainabera elkarteak antolatu duen zikloa. Hitzaldi hauek Iturri Kultur Etxean izango dira, 19:00etan

**ELORRIO** M.Z.
Maiatzagaz batera, Kainabera elkarteak antolatzen duen hitzaldi zikloa heldu da. Elorrioko elkarteak hamabost urtetik gora daramatza hitzaldiak antolatzen, eta aurtengoan ere ez dute hutsik egin.

Maiatzaren 12an hasiko da berbaldi zikloa, 19:00etan, Iturri Kultur Etxean, eta bertan Ivan Forerero exiliatu politikoa eta CEAReko kidea Kolonbiako bake prozesuaz arituko da. "Elkarteak sorreratik egin du lan Kolonbiako proiektuekin, eta, horregatik, bereziki hurbil sentitzen dugun herrialdea da Kolonbia", adierazi dute Kainaberako kideek.

Kolonbiako bake prozesuaz gain, Europan gaur egun errefuxiatuek bizi duten egoerari buruz ere arituko dira Mayte Gamo psikologoa eta Ines Echave-Sustaeta abokatua, maiatzaren 17an.

Azken hitzaldiaTrump eta Europako faxista berrien inguruan izango da. Maiatzaren 24an, Victor Pozas EHUko irakasle eta HEGOA fundazioko kideak nazioarteko panorama politikoan eskuineko ideiak hartzen dabiltzan indarrari buruzko hitzaldia emango du.

# 24 orduko greba egin dute Wiside Telecomen

Lan baldintza "prekarioak" salatu dituzte

**ELORRIO** M. Zuazubiskar
Martxoaz geroztik, Elorrioko Wiside Telecom enpresako langileak lanuzteak egiten dabiltza "lan baldintza duinen alde". Eroskirentzat lan egiten duen azpikontratako langileek lan baldintza "prekarioak" salatu zituzten, eta lau elkarretaratze egin ostean, asteon 24 orduko greba egin dute.

"Wiside Telecom enpresak proposamen bat helarazi zigun, baina proposamen horregaz ados ez geundenez, 24 orduko lanuztea egitea erabaki genuen", adierazi du ELA sindikatuko Gotzon Basarasek. "Langileek lan baldintza prekarioak dituzte, eta enpresaren proposamen berriagaz ere berdin jarraituko zuten", gaineratu du ELA sindikatuko arduradunak.

Elorrioko Betsaide poligonoan dauden 65 langileek lanaldi osoan 900 eurotik beherako irabaziak dituztela eta enpresak, gainera, "ez ikusiarena" egiten duela adierazi du Basarasek. Beraz, datozen egunetan enpresagaz akordio batera iritsi ezean, lanuzte luzeagoak egingo dituztela jakitera eman dute langileek.

Lanaldi osoan 900 eurotik beherako irabaziak dituzte Wiside Telecom enpresako langilerik gehienek




Martitzenean egin zuten 24 orduko lanuztea Wiside Telecom enpresako langileek.

## Bederatzi urteren ostean, hitzarmena sinatu dute MEGAn eta Garmendian

**BERRIZ** M.Z.
Berrizko MEGA eta Garmendia enpresetan lan hitzarmena sinatu dute bederatzi urteren ostean. Joan den azaroan hainbat langilek baldintza "prekarioak" salatu eta elkarretaratzeak egin ostean, lan hitzarmen berria sinatu dute. "Beste behin ere ikusi da mobilizazioak ezinbestekoak direla patronala mugiarazteko. Langileak elkartuz gero, egoera hobetu daiteke", adierazi dute ELA sindikatuko kideek.

Sindikatuak oharrean azaldu duenez, lan hitzarmen honi esker langileen gutxieneko soldatak "dezente" hobetuko dira, kasu batzuetan %15eko igoera izango dute eta. Horrez gain, kasurik okerrenean %5eko igoera izango dutela jakitera eman dute sindikatuek.

Bestalde, hemendik aurrera lan istripuren bat gertatzen denean edo gaitz profesionalak daudenean soldataren %100 kobratuko dutela esan dute.

## Sexualitate eta genero tailerra, Berrizen

**BERRIZ** M.Z.
Herriko emakumeei zuzenduta, sexualitate eta genero tailerra antolatu du Berrizko Udalak maiatzerako. *Ikuspuntu feministatik sexualitatea modu positiboago batean bizitzea* lema duen tailerra maitzaren 16an hasi eta maiatzaren 30ean bukatuko da. Berrizko Kultur Etxean eskainiko den sexualitate eta genero tailerrean hainbat gai jorratuko dituztela jakitera eman dute.

Horrez gain, bertan parte hartu gura duenak aurrez eman beharko du izena, 94 682 40 36 zenbakira deituta edo *gizarte3@berriz.eus*-era idatzita.






# Garagardo artisauen azokagaz hasiko dute aste kulturala

Maiatzaren 13an izango da, eta doako autobusa egongo da joan-etorrirako



Gaztetxoentzako herri kirolak izango dira aste kulturaleko beste osagaietako bat maiatzaren 18an.

**MAÑARIA** Joseba Derteano
Mañariko aste kulturala azoka berri bategaz hasiko dute, maiatzaren 13ko zapatuan. Garagardo artisauen ingurukoa izango da. Artisau, elikadura eta landare azoka dagoeneko ezaguna denez, apustu berri bat egitea eta beste azoka bat egonkortzen saiatzea erabaki du udalak.

Mañariko plazan, garagardoa artisau-eran egiten duten hiru-lau postu egongo dira, 18:00etan hasita: Boga Garagardoak, Txorierri Garagardoak eta Etxeandia Garagardoak baiezkoa eman dute, eta baliteke laugarren bat ere etortzea. Edariari laguntzeko, *food truck* edo janari furgoneta bi egongo dira: Sushia salduko du batek, eta bertoko haragiagaz egindako saltxitxa ogitartekoak besteak.

Zuzeneko musikak jai-giroa jarriko du. Arratsaldean Bazter Trio taldeak girotuko du plaza ingurua; ostean, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldearen doinu mexikarren txanda izango da.

Azokarako joan-etorria autoa hartu barik egin gura dutenek badute horretarako aukera. Udalak doako autobusak jarriko ditu Durangoko Madalenatik. Azokara joateko autobusak 18:00etan, 20:00etan, 21:00etan eta 22:00etan irtengo dira. Bueltarako autobus bi daude, 22:30ean eta 23:30ean.

**Hitzaldiak, herri kirolak...**
Beste ekitaldi ugari ere badaude aste kulturalaren barruan. Esaterako, Toti Martinez de Lezeak eta Alberto Iñurrategik hitzaldi bana eskainiko dute maiatzaren 16an eta 17an, hurrenez hurren, liburutegi zaharrean, 19:00etan. Hilaren 18an, haurren herri kirolak izango dira plazan.

## Pago-egurra eskuratzeko izena eman daiteke

**MALLABIA** J.G.
Mallabiko Udalak jakitera eman duenez, Longaburu menditik erabilera propiorako pago-egurra lortzeko aukera emango dute.

Egur hori eskuratzeko lanak, (moztu, garraiatu, jaso eta abar), interesdunen kontura izango direla azaldu dute udal arduradunek.

Longaburuko pago-egurra eskuratu gura duten herritarrek izena eman beharko dute aurretik, maiatzaren 12a baino lehen, udaletxean.

## Seme-alabak jaiotzeagatiko diru-laguntzak

**IZURTZA** J.D.
Seme-alabak jaiotzeagatik edo adoptatzeagatik diru-laguntzak zehazten dituen ordenantza hasiera batean onartu zuten azken udalbatzarrean. Behin betiko baietza eman aurretik, alegazioen epea ireki dute. Ordenantzak jasotzen duenez, 500 euroko laguntza jaso daiteke baldintzak betez gero. Zenbateko hori umearen beharrizanak estaltzera zuzenduta egon beharko da.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**GOIZTIDI DIAZ**
EAJ



**Gure esku?**

Bai, noski! Edo behintzat, halan izan beharko leuke. Urteak daramatzagu eskaera hori eginez. Umeak garenean gure nortasuna guk geuk landu eta garatu behar dogula irakasten deuskue. Bakoitzak garatu behar omen dau bere pertsonalitatea. Horrela ba, ikastolara goaz geure nortasuna, pertsonalitatea eta etorkizuna lantzera.

Baina helduak izan ahala, konturatu egiten gara ezin dogula ehuneko ehunean gure nortasuna garatu. Nik behintzat ezin izan dot. Eta gaztetatik galdetzen deutset neure buruari, zergatik ez dago nire esku zer izan nahi dodan? Nire esku egon zen zirujau izatea, eta halan egin naban. Nire esku egon zen baita ere ikasketak euskeraz egitea, eta halan egin nabezan. Nire esku baita ere norekin bizi nahi naban erabakitzea, eta halan aukeratu naban, nahiz eta azken honetan biren esku egon gaia.

Bestalde, urte hauetan guztietan ez da nire esku egon zein nazio nortasun eduki behar dodan. Ni abertzalea naz, Euskadin bizi naz jaio nintzenetik eta euskaldun sentitzen naz. Euskadiren mugetatik haratago euskaldun moduan aurkezten naz, baina, ofizialki, beste nazio baten nortasuna atxekitzen deustie. Gure aberria zein den erabakitzea gure esku egon beharko leuke. Zergatik ezin dau herri batek erabaki zein dan bere nortasuna?

Igande honetan aukera ona dekogu gure esku egon daiten. Hainbeste urtean gure nortasuna zein dan aldarrikatzen egon garen abertzaleok badekogu lana. Nik argi dekot ez dodala aukera galduko nire botoa emateko. Gure esku dauenez gero, eskuak poltsikoetan sartu beharrean goazen gure botoa ematera. Nik argi dekot zein dan nire aberria. Gora Euskadi Askatuta!

### DURANGALDEA ASTEON

## iPad-a irabazi duen zenbakia 120.732 da

**DURANGALDEA >** Salerosketak be Euskaraz ekimenari dagokion 28. iPad elektronikoa lortzeko zozketa egin dute asteon. Zenbaki irabazlea 120.732 da, eta Txente Sukaldeak-en saldu dute. Ordezko zenbaki bat ere atera dute, badaezpada: 104.529. Gorroño Gortinak dendan banatu dute zenbaki hori.

## Ikasle alemaniarrei harrera egin diete

**DURANGO >** Alemaniako Luisenschule ikastetxeko ikasle batzuk Durangon dabiltza egunotan, San Antonio Santa Rita ikastetxeagaz elkartrukea landuta. Durangarrak apirilean egon ziren Alemanian. Durangoko udaletxean harrera egin diete asteon, eta Aitziber Irigoras alkateak parte hartu du ekitaldi horretan.

## Zerrenda prestigiotsuko buruan, Atxaren jatetxea

**ZORNOTZA >** Elite Traveler aldizkariak 100 jatetxerik onenen zerrenda osatzen du irakurleen iritziak kontuan hartuta, eta Eneko Atxaren Azurmendi lehenengo tokian dago aurten. Azurmendik hiru Michelin izar ditu. Iaz beste jatetxe bat ireki zuen Londresen, eta irailean beste bat inauguratuko du Tokion.

### IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

## Zabalduko Ditugu

Zabalduko Dituguk mozioa sartu eta gehiengoz onartzea lortu dugu. Horrek asko pozten gaitu, durangarrontzat berri ona baita udalean alokairu sozialaren aldeko pausoak egitea onartzea. Hala ere, argi utzi nahi dugu hau ez dela udalak berak egin duen zerbait, baizik eta gazteok aspaldi hasi genuen mugimendu eta ekimenei esker lortu dugula. Beraz, zorionak guztioi.

Hala ere, oraindik, Durangon egoera larria da oso. Ia 1.500 etxe daude hutsik, eta gazteon emantzipazio adina 30 urtekoa da. Egoera horren aurrean, Durangoko Udalak egin duen programak ez du balio izan, ez baitira etxeak alokatzea lortu, gazteok ez baitugu eskatzen dituzten baldintzak betetzea lortzen, horrek ezinezkoa egiten duelarik gazteok etxebizitza eskuratzea.

Mozioa onartu zenetik, udalak ahaleginak egingo dituela esan du, eta eskuratu dituzten 6 etxebizitza gazteontzat alokairuan jarriko dituztela esan dute. Baina guk argi diogu: 6 etxebizitza ez dira nahiko, eta ezta ahalegina egingo dela esatea ere. Guk emaitzak behar ditugu. Beraz, esan duten bezala, Kutxabanken etxe hutsak zesioan uzteko eskatu behar du udalak, eta hori ezinbestean lortu, kontuan izanda Durangoko Udalaren dirua banketxe horretan bildua dagoela. Egoera horretan udalak Kutxabank bere etxeak zesioan uztera behartu behar du.

Gu, orain arte bezala, udalak egiten digun edozein elkarlan egiteko prest agertzen gara, baina argi uzten dugu, horretarako gonbidapenik izaten ez badugu ere, lanean jarraituko dugula gure helburuak lortu arte.

Ane Amantegi Juaristi , Martin Arbeo Sarriugarte, Ekaitz Andueza Arrona. Durangoko Zabalduko Ditugu.

Berbaz

**Jaione Arregi Urizar** | Europar Batasunean eta Espainiako senatuan interprete aritzen da | Zaldibar, 1976

# “Estatu bakoitzak hizkuntza gutxituekin duen harreman hori islatzen da EBan”

Komunikazioaren beharrizanen garapen bat eman dela dio Arregik. “Etorkinekin, errefuxiatuekin... dago premia, ez hainbeste diplomazian”



> BERBAZ Aitziber Basauri

**Europar Batasunerako interpretea da Jaione Arregi. Freelance moduan ari da lan horretan, 2000. urtetik. Hala ere, 1998an joan zen lehenengoz Bruselara, beka bategaz, Itzulpengintza eta interpretazioa ikasketak bukatuta; EBko Batzordeko itzulpengintza zerbitzuan egin zuen lan. Euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, italiera eta portugesa hitz egiten ditu zaldibartar honek.**

**Zein da Europar Batasunean egiten duzun lana?**

Atzerriko hizkuntzetatik —ingelesa, frantsesa, italiera eta portugesa— nire bi ama hizkuntzetara interpretatzen ditut, euskarara eta gaztelaniara. Inoiz ez alderantziz. Normalean, Bruselan eta halako erakundeetan bakoitzak bere ama hizkuntzara interpretatzea gura dute. Bi norabidetan, euskara -gaztelania egiten dut bakarrik.

**Nolako presentzia du euskarak EBan?**

Eskualdeen Batzordean erabili daiteke, eta erabiltzen dute —katalana, galegoa, euskara... daude—. Marian Elorza Jaurlaritzako kanpo harremanetarako idazkari nagusiak edo Uxue Barkos Nafarroako presidenteak parte hartzen dute hor, adibidez. Batzuetan, Ministroen Kontseiluan ere erabiltzen dute. Hala ere, Parlamentuan ezin da.

**Sinbolikoa da erabilera ?**

Ez. Hizlari edo politikari bakoitzak hizkuntzarekiko duen ardura edo sentsibilizazioaren araberakoa da. Dena den, kontua da oso aukera gutxi daudela hitz egiteko; protokolo gehiegi dago. Sinbolikoa ez da, egiten da. Adibidez, Marian Elorzak aurkeztutako mozioak euskaraz defendatzen ditu, euskaraz komunikatzen da, baina hitz egiteko aukera gutxi duenez...

**Nola egiten duzue lan interpreteok kabinan?**

Batzarrean dauden hizkuntza kopuruaren arabera bi-hiru interprete egoten gara, eta bakoitzak batzarrean erabiliko diren hizkuntza gehienak egin ditzan saiatzen gara. Hizkuntza bat falta zaigunean ‘relai’ deritzona egingo dugu. Adibidez, orain EBko Kontseiluko presidentea Maltakoa da. Espainiar kabinan ez dugu maltera dakien inor. Orduan, ingeleseko kabinakoek maltera-ingelesa egingo dute, eta hortik interpretatuko dugu.

> “EBak hizkuntz aniztasunaren aldeko konpromisoa hartu du”

**Hizkuntza gutxituekiko harremana, nolako da?**

Estatukide bakoitzak hizkuntza gutxituekin duen harreman hori islatzen da Europar Batasunean. Hala ere, egia da EBk hizkuntz aniztasunarekiko konpromisoa hartu duela. Halako erakunde batek 24 hizkuntza ofiziali eustea ez da ohikoena. Horretan EBren alde egin behar dut. Nazio Batuen Erakundean, adibidez, ingelesa, frantsesa, arabiera, txinera eta errusiera daude. Egungo pragmatismoaren aurrean badago eleaniztasunaren aldeko konpromisoa.

**24 hizkuntza ofizial eta herrialde desberdinetako beste 60 hizkuntza dauden arren, ingelesaren pisua nabarmena da?**

Bai. Iparraldeko herrialdeetan ingelesa da bigarren hizkuntza, *de facto*. Pragmatikoagoak ere badira, eta hizkuntzarekiko beste ikuspuntu bat dute. Azkenengo sartu diren herrialde askok ere ingelesa egiten dute. Munduan gertatzen denaren isla da.

**Hizkuntzek betidanik erakarri zaituzte?**

Bai, nahiko goiz hasi nintzen ingelesagaz, eta institutu garaian fratsesagaz hasi nintzen. Dena den, beti izan dut irakurzaletasun handia eta komunikaziorako gogoa, jakin-min intelektualari lotuta: nola egin posible komunikazioa, herrialdeen arteko desberdintasunak... Itzulpengintzak eta interpretazioak izena jarri zion egin gura nuen horri. Bokazioa zen nirea. Hizkuntzen artean ibili gura nuen.

> “Komunikazioa bermatu behar dugu, etengabe, eta batzuetan zail egiten da”

**Nola lortzen da hizkuntza bat ondo hitz egitea?**

Beste kultura batean murgiltzeko gogoa behar da, jakin-min hori izatea. Eta ikasi, noski! Funtsezkoa da ere herrialdean egotea eta praktikatzea. Hizkuntza behar duzula, erabiltzeko premia duzula sentituz ikasten da.

**Zein da hizkuntzarik zailena interpretatzeko?**

Ingelesa. Ikasteko eta erabiltzeko erraza da, baina zaila sakontzeko. Asko aldatzen da, eta trinkoa eta oso dinamikoa da. Gainera, hainbat doinu daude.

**Itzultzailea eta interpretea ez dira gauza bera.**

Itzulpena idatzizkoa da, eta interpretazioa ahozkoa. Aldibereko interpretazioa eta esan ostekoa daude— esan dutenagaz oharrak hartu eta gero diskurtsoa ematea— ; lotura gisa funtzionatzen duena ere bai, bi norabidetan egiten dena. Zerbitzu publikoen aurreko interpretazioa ere badago —ospitaletan, komisarietan, epaitegietan...—. Hortik doa lanbidearen etorkizuna. Komunikazioaren beharrizanen garapen bat eman da: etorkinekin, errefuxiatuekin... dago premia, ez hainbeste diplomazia mailan. Hala ere, profesionalizatzea behar da hor.

**Aldiberekoa da zailena?**

Ikasi egiten den teknika bat dago, baina dohaina ere behar da. Komunikazioa bermatu behar dugu, etengabe, eta batzuetan zail egiten da: diskurtso trinkoak direlako, oso arin hitz egiten dutelako edo irakurri egiten delako. Teknika eta hizkuntzak ondo jakin behar ditugu, eta egunean jorratuko den gaia landu. Ekonomia eta finantzak egiten zaizkit zailen, baina dokumentatzeko era asko daude, eta hori ere gure lanaren zati da.

**Nolako hizlariak daude?**

Maila nahiko apala da. Zaila da hizlari ona izatea. Gainera, hizkuntzarekiko maitasuna galdu dela uste dut; hizkuntzari arreta pixkat bat jartzea falta da .

**Interpreteak ikusezinak dira?**

Ideiak, mezua, intentzioa beste hizkuntza batera ekarri behar dugu. Ezer gehitu edo kendu gabe, ahalik eta ñabardura gehien jasoz. Nolabaiteko neutrotasun hori dugu. Komunikazio arina lortu bada, traba gabe, komunikatu egin da. Ikusezinak gara hor. Komunikazioa ahalbidetu dugu.

# Anborenlagunak




**Honako denda eta zerbitzuek deskontuak aplikatuko dizkiete ANBOTO txartela duten erabiltzaileei:**

A-METZ DEKORAZIOA · BETIXU JATETXEA · COLOR PLUS · EPOCA SUKALDEAK · EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA · GIMNASIO ZIRKIN · HITZ LIBURU-DENDA · HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA · ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA · IURRETA KOPISTEGIA · KATXARRO JATETXEA · KIROL ERROTA GIMNASIOA · LANDAKO OPTIKA · MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA · NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA · OPEN KLUB · PLATERUENA KAFE ANTZOKIA · UNAMUNZAGA ETXEBARRIA · HORTZ-KLINIKA · UNDARRI BIKE · URRIKE LIBURU-DENDA · UR URDAIBAI

# PLAZAN BAZAN 5

www.plazanbazan.eus

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

## ZORTZI ALDEAK

Aurkitu bi irudi hauen artean dauden zortzi aldeak





## Arrotza

Hemen bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena, zein da?




Sartu **www.plazanbazan.eus** web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

## PAREAK

Arriskutsuak ala onu
dira mikrobio guztiak
erakusten dituzte.

Ondoko irudian aurki
'xomorrotxoa'.

Eta beste lauki honetan, birus gaizto bat.



# BAI!

ragarriak izan, benetan xelebreak
. Forma harrigarri eta bitxiak

tu bikoterik osatzen ez duen

Ondoko lauki honetan, marraztu eta margotu bakterio zintzo bat.





# MENDIAN

- Irudi honetan ikusiko dituzun hainbat elementu ez genituzke mendian inoiz aurkitu beharko. Bederatzi dira guztira. Zeintzuk dira ?
- Animalia hauen artetik zeintzuk agertzen dira eskuineko irudi handian?




- Bestalde, bada beste animalia bat paisaian, goiko koadroan jasota ez dagoena.Zein da?

**MATRIKULAZIO DATAK**
maiatzaren 2tik
maiatzaren 12ra

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten

# HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU

Haurreskolak


TRAÑA-MATIENA

**ABADIÑOKO HAURRESKOLA**
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus


ZELAIETA

**ABADIÑOKO HAURRESKOLA**
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



**ATXONDOKO HAURRESKOLA**
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus


EGUZKILORE

**BERRIZKO HAURRESKOLA**
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus


JULENE AZPEITIA

**DURANGOKO HAURRESKOLA**
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



**ELORRIOKO HAURRESKOLA**
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus


ETORKIZUNA

**IURRETAKO HAURRESKOLA**
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus


INTXAURTI

**MALLABIKO HAURRESKOLA**
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



**MAÑARIKO HAURRESKOLA**
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



**OTXANDIOKO HAURRESKOLA**
Mainondo, 7A OTXANDIO
Tel.: 945 450 997
otxandio.otxandio@haurreskolak.eus


ZALDUZUBIETA

**ZALDIBARKO HAURRESKOLA**
Autonomia, z/g ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus



**ZORNOTZAKO HAURRESKOLA**
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus

· www.haurreskolak.eus ·

**Kultura**

# Iagoba Fanloren txelo emanaldiak abiatuko du Zornotzako Eleizetan

Bach-en musikagaz hasiko da, gaur, Zornotzako Eleizetan programazioa. Herriko bost ermitatan izango dira, maiatzean, ganbera musika emanaldiak

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Ohi bezala, musika eskaintza eklektikoa dakar Eleizetan zikloak Zornotzako auzoetara, musikariekiko hurbiltasun handiko kontzertuetan. Programazio horren XVIII. edizioa da aurtengoa, eta Iagoba Fanlo musikari donostiarrak zabalduko du. Madrilgo goi mailako errege kontserbatorioko hari-instrumentuen saileko burua da Fanlo txelista, eta Bach-en piezak eskainiko ditu, gaur, 20:00etan, Boroako San Pedro ermitan.

Gani Mirzo laute-jotzaile kurduaren hirukoteak joko du zikloaren barruko bigarren hitzorduan. Maiatzaren 13an, 20:00etan, Garitondoko San Isidron izango da emanaldi hori. Luis Javier Ugarte kultur teknikariak azaldu duenez, errefuxiatua da Mirzo, eta Bartzelonan bizi da azken urteotan. Neila Bembey abeslariak eta Juan José Barreda gitarristak lagunduta arituko da Zornotzan. “Ekialdeko sonoritateak” izango dira kontzertu horretan protagonistak.

Bestalde, musika sefardia izango da entzungai maiatzaren 14an. Egun horretan, Iris Azquinezer txelistak eta Rainer Siferth gitarristak osatutako Zaruk bikoteak Bernagoitiko San Migel elizan joko du, 12:15ean.

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere badago Musikeneko ikasleen emanaldi bat Eleizetan programaren barruan. Arteko hirukotea gonbidatu dute, maiatzaren 20an, 12:15ean, Dudeako San Migel ermitan jotzera. Unai Celaya biolinistak, Guillermo Pérez tronpa-jotzaileak eta Andrés Martínez pianistak osatzen dute hirukote hori.

Ana Uriarte zornotzarrak zuzentzen duen BIOS orkestraren eta Iñaki Alberdi akordeoilariaren emanaldiagaz amaituko da 2017ko Eleizetan. Gustav Holst, Bela Bartok eta Astor Piazzolaren konposizioak joko dituzte, maiatzaren 21ean, 12:30ean, Etxanoko Andra Marin.

Aurreko urteetan bezala, udalak autobus zerbitzua eskainiko du herrigunetik baselizetara joateko. Kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago aterako da autobusa Gudari kaleko autobus geltokitik —hiru ordu laurden lehenago maiatzaren 14ko kontzertuaren kasuan—.

## EGITARAUA

- Maiatzaren 5ean, 20:00etan, **Iagoba Fanlo**, Boroako San Pedro baselizan.
- Maiatzaren 13an, 20:00etan, **Gani Mirzo**, Garitondoko San Isidro baselizan.
- Maiatzaren 14an, 12:15ean, **Zaruk**, Bernagoitiko San Migel baselizan.
- Maiatzaren 20an, 12:15ean, **Musikeneko Arteko hirukotea**, Dudeako San Migel baselizan.
- Maiatzaren 21ean, 12:30ean, **Iñaki Alberdi & Bios ganbera orkestra**, Etxanoko Andra Mari elizan.



Bach-en txelorako piezak eskainiko ditu Fanlok, Boroan, gaur.



Bi musikarik lagunduta arituko da Gani Mirzo kurdua, maiatzaren 13an.

# Musika eskolako biolontxelistek ‘Frozen’ musikala eskainiko dute

Durangoko musika eskolako aretoan eskainiko dute emanaldia, gaur, 19:30ean



Musika eta irudiak uztartuz sortu duten ikuskizunaren bi emanaldi eskainiko dituzte, gaur.

**> MUSIKA** I. E.

*Frozen* filmeko kantuak oinarri hartuta osatu duten ikuskizuna eskainiko dute Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako eta kontserbatorioko ikasleek, gaur, eskola horretako areto nagusian. Bi emanaldi eskainiko dituzte; lehenengoa, 17:30ean, 4 eta 5 urte arteko musika eskolako ikasleei zuzenduta egingo dute, eta publiko orokorrarentzat doako emanaldia eskainiko dute, 19:30ean.

Durangoko musika eskolan biolontxelo ikasketak egiten dabiltzan 30 ikaslek parte hartu dute ikuskizunaren sorreran, eta gaurko emanaldian, bakarka, binaka zein orkestran arituko dira. Musikal formatua dauka ikuskizunak, eta biolontxeloa jotzeaz gain, besteak beste, eszenatokiaren dekoratuaz ere arduratu dira ikasleak.

> Musika eskolan biolontxeloa ikasten duten 30 lagunek parte hartuko dute gaurko emanaldietan

Musika eskolako arduradunek prentsa ohar batean azaldu dutenez, biolontxeloko gelan sortutako proposamen batetik jaiotako proiektu pedagogikoa da gaurko emanaldia azken emaitzatzat daukan hau. Arduradunen berbetan, bi helburu hauekin abiatu zuten ekimena: “Batetik, biolontxelorako gaur egungo errepertorio dibertigarri bat osatzea, eta, bestetik, maila eta adin guztietako ikasleak” elkartuko zituen proiektu “integratzailea” gauzatzea.

## ‘Kanpai joka’ erakusketa inauguratu dute Museoan

**> ARTEA** I. E.

Atzo zabaldu zuten ekainaren 11ra arte Durangoko Arte eta Historia Museoak hartuko duen *Kanpai joka* erakusketa. Satur Peña eta Isabel Aliaga artistek elkarregaz sorturiko Equipo Saisa proiektuan egiten duten lanaren erakusle da bilduma hori. Kanpaien irudiak agertzen dituzten grabatuak daude erakusketan. “Pazientziaren, teknikaren eta esperientziaren fruitu diren grabatuok lotsaz irten dira jendaurrera, ikusleen begirada jasotzera”, diote egileek; “orduan osatuko da obra”.

Maiatzaren 23an, 18:30ean, Durangoko Arte eta Historia Museoan egongo dira Peña eta Aliaga, erakusketa bisitatu gura dutenei euren lanari buruzko azalpenak ematen.

# Gazte antzerkigileen Zugan Ni jaialdia egingo dute Durangon

San Agustin kulturgunean egingo dute, bihar, Zugan Ni gazteen antzerki jaialdiaren hamargarren edizioko jaialdia. 19:00etan hasiko da emanaldia



Zugan Ni ekimenean, gazteek ikasturte honetan sortu dituzten antzezlanak eskainiko dituzte San Agustinen.

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban

Zornotzako Markeliñe taldeak gidatzen duen Zugan Ni gazteen antzerki jaialdiaren emanaldia egingo dute, bihar, Durangoko San Agustin kulturgunean. Ikasturte honetan Zugan Ni ekimenaren barruan lantzen ibili diren antzerki obrak erakutsiko dituzte eskualdeko hainbat antzerkilari gaztek, 19:00etan hasiko den saio horretan. Maiatzaren 14an izango dute bigarren hitzordua: Zornotza Aretoan eskainiko dute bigarren emanaldi hori.

> Durango, Zornotza, Iurreta eta Igorreko 89 gaztek parte hartu dute aurten Zugan Ni ekimenean

Zugan Ni ekimenaren saioetan, gazteei arduratzen eta interesatzen zaizkien gaien inguruan sorturiko antzerki lanak izango dira ikusgai, bihar, Durangon, eta maiatzaren 14an, Zornotzan. Ikasturtean zehar landutako antzezlanak ez ezik, aurreko urteetako irudiekin osaturiko bideoklipa ere emango dute jaialdi bietan.

> Beraien intereseko gaien inguruan gazteek sortutako antzerki obrak eskainiko dituzte

Durango, Zornotza, Iurreta eta Igorreko 89 gaztek parte hartu dute aurten Zugan Ni ekimenean. Zornotzan, Igorren eta Durangon bina talde sortu dituzte, eta beste bat Iurretan.

Ekimenaren hamargarren edizioa izan da aurtengoa, eta Markeliñe taldeko arduradunak pozik daude egindako bideagaz. Besteak beste, "hasierako urteetan ikasle gisa parte hartu zutenetariko batzuk hezitzaile lanetan ibili direlako aurten", azaldu dutenez.

## Jon Basaguren bere gitarragaz, Berrizen

Tren Geltokiko Musikariak zikloan joko du

**> MUSIKA** I. E.

Izaki Gardenak taldeko Jon Basagurenek bakarka joko du, maiatzaren 10ean, Berrizko Kultur Etxean. Tren Geltokiko Musikariak zikloaren barruko bigarren hitzordua izango da Basagurenena. Musikari gasteiztarraren ahotsa eta bere gitarraren doinua izango dira emanaldiaren muina. Basagurenen kantuak sorrerako modu soilean entzuteko aukera izango da datorren eguaztenean Berrizko Kultur Etxean eskainiko dutena; Izaki Gardenak taldeko kideen parte-hartzeagaz osatu aurreko Basagurenen konposizioak ezagutzekoa.

Musikari euskaldun biren emanaldiekin abiatu da Berrizko Tren Geltokiko Musikariak zikloa: Ekizagaz eta Basagurenegaz. Zikloaren barruko beste hiru kontzertuak, aldiz, euskal musika eszenatik haratagokoak izango dira. Maiatzaren 22an, Portugalgo First Breath After Coma taldeak joko du, Jardin de la Croix madrildarrek azaroaren 4an, eta Astralia kataluniarrek azaroaren 11n.

## Vicente Zavala ipuin lehiaketako sari ematea

Durangoko liburutegian egin zuten sari banaketa

**> LITERATURA** I. E.

"Belaunaldi berrien artean idazteko zaletasuna biziagotzen jarraitzeko helburuagaz" antolatu du ipuin lehiaketako bigarren edizioa Durangoko Vicente Zavala elkarteak. Joan zen eguenean egin zuten sari banaketa ekitaldia, Durangoko udal liburutegian. Aitziber Irigoras alkateak eta Mari Jose Balier alkateordeak parte hartu zuten, besteak beste, ekitaldian.

DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleei zuzenduriko lehiaketa izan da Vicente Zavala elkarteak antolaturiko hori, eta euskaraz zein gaztelaniaz bidali dituzte gazteek euren lanak, "emigrazioa eta errefuxiatuak" gaitzat hartuz.

Irakasle talde batek osatu du lehiaketako epaimahaia, eta hautatu dituzten bederatzi ipuinen egileek gailu teknologikoak jaso dituzte sari gisa.

2013. urtean durangar talde batek sorturiko elkartea da lehiaketa antolatu duen Vicente Zavala. Zavalaren obra kulturala kontserbatzea eta sustatzea da elkartearen helburua.

## GEURE DURANGALDEA

**MARTIN LOIZATE SARRIONANDIA**

Ikaslea



### Erabakitzeko obligazioa

Indiferentzia gaitz larria izatera iritsi daiteke, medikuek ohartarazi dutenez, gizartearen izatea bera arriskuan jartzeraino. Ez ei da diagnostikatzen zaila, sintomak dira: apatia, indibidualismoa, koldarkeria, idorreria… Indiferentziak metastasiak sortzen dituela uste dute, palma olioak beste ia.

Indiferentzia da erabaki kolektiboetan parte ez hartzeko joera, A ala B, *gaur onartu behar dugu maitia bi aukera baizik ez dira*, hautatzeko erantzukizun eza. Kasu larriak diagnostikatu dira azken urtean, Euskal Estatua Bai/Ez galdeginda iritzirik ez zuten pazienteak adibidez.

Indiferenteek, nahiz eta pasiboki egin, indarrez eragiten dute historian. Zailak dira kontuan hartzen, asmorik landuenak ere izorra ditzakete. Gizartea aldatzeko asmoz sortutako ekintza baten arrakasta (edo porrota) ez dago hainbeste beronen sortzaileen ahaleginean (edo kontrakoen erreakzioan), baizik gainontzeko guztien indiferentzian.

Horregatik zien, hainbaten, indiferenteei gorrotoa italiar partisanoak: "Indiferentzia da historiaren pisu hila. Berritzailearentzako berunezko bola, karrik distiratsuenak hondoratzen diren materia bizigabea, hiri zaharra inguratu eta harresirik sendoenak baino hobeto defendatzen duen urmaela".

Oraindik argitu ez duten arren, lehen hipotesien arabera telefono antena eta sare elektrikoen uhin elektromagnetikoek eragina izan dezakete gaitzaren sorreran, baita Marca gehiegi irakurtzeak ere.






## AGENDA

### FUTBOLA

**BIGARREN B MAILA (gizonak)**

**Amorebieta - Logroñes**
· Domekan, 18:00etan, Urritxen.

**HIRUGARREN MAILA (gizonak)**

**Durangoko Kulturala - Tolosa**
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

**OHOREZKO MAILA (gizonak)**

**Elorrio - Iurretako**
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

**Zaldua - Erandio**
· Domekan, 12:00etan, Solobarrian.

**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**

**Zorrontzako - Mungia**
· Zapatuan, 17:30ean, Larrean.

**Ezkurdi - Lezama**
· Domekan, 17:00etan, Tabiran.

**Amorebieta B - Ermua**
· Domekan, 16:00etan, Txolonen

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**

**Ezkurdi - Derio**
· Zapatuan, 15:30ean, Tabiran.

### ARETO-FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA (gizonak)**

**Presion Break - Otxartabe**
· Zapatuan, 16:45ean, Berrizburun.

**Elorrioko Buskantza - Sasikoa Durango**
· Zapatuan, 17:00etan, Elorrioko kiroldegian.

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)**

**Mallabia B - Zurbaran**
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarren.

**EMAKUMEEN MAILA**

**Beti Gol - Sasikoa**
· Zapatuan, 17:30ean, Larrean.

### SASKIBALOIA

**ZILARREZKO LIGA (igoera fasea)**

**Zornotza S.T. - Avila**
· Barikuan, 20:00etan, Larrean.

### PILOTA

**BIHARKO IZARRAK**

**- P.Labaka - Irurita / Garcia - Otaduy**
**- Prado - Mariezkurrena / Salaberria - Aizpuru**
· Eguenean, 17:00etan, Mallabiko pilotalekuan.

**BIZKAIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA**

**- Abadiño - Orozko**
· Barikuan, 19:00etan, Abadiñoko pilotalekuan.
**- Atxondo - Usansolo**
· Zapatuan, 10:00etan, Atxondoko pilotalekuan
**- Iurreta - Mallabia**
· Zapatuan, 18:00etan, Iurretako pilotalekuan.

Kirola

# Emakumeen Birak etapa laburragoak izango ditu aurten, "bizitasuna" bilatzeko

"Etapak mugituak izan daitezela bilatzen dugu", azaldu dute aurkezpenean Birako antolatzaileek


Annemiek Van Vleutenek 2015eko erlojupekoa irabazi eta elastiko horia jantzi zuen; sailkapen nagusian bigarren eta hirugarren postu bana ditu. M. Zuazubiskar

**> TXIRRINDULARITZA** J. Derteano

Aurtengo Emakumen Biran etapa luzeak ekidin dituzte. Bost etapetako bat bera ere ez da 100 kilometrotara helduko. Lasterketak ibilbide laburragoan kontzentratuta, bizitasuna areagotzea bilatzen dute.

Etapa luzeak ez dira ikuskizun gehiagoren sinonimo askotan. Indarrak normalean baino gehiago neurtzeko joera dute taldeek, eta horrek ikuskizunari eragiten dio. Horregatik egin dute etapa laburren aldeko apustua. "Asperraldirik gabeko lasterketa bizi eta mugituak izan daitezela bilatzen dugu", adierazi du Agus Ruiz Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteko kideak aurkezpenean.

Durangaldeko lasterketa bategaz hasiko dute 30. aldia, maiatzaren 17ko eguaztenean. Hiru urte ziren eskualdean hasi eta amaitzen zen etaparik ez zegoena. 16:00etan Iurretan hasiko den etapan Abadiño, Atxondo, Elorrio, Berriz, eta Zornotzatik ibiliko dira. Azkenengo etapa biak gogorrenak izango dira eta, printzipioz, Birako irabazlea erabakiko dutenak. Laugarren etapa Aralarko San Migel mendatean bukatuko da, Nafarroan. 11 kilometroko igoerak %8ko aldapak ditu, batez beste. Azken etapako erronka ere ez da nolanahikoa: Jaizkibel mendatea.

> Durangaldeko herriak zeharkatuko dituen lasterketa bategaz hasiko da Bira, hilaren 17an

### Santestebanen itzulera

Errenteriako azken etapak protagonista berezi bat izango du: Ane Santesteban errenteriarra. Iaz Rioko Joko Olinpikoetan parte hartu zuen eta bere herriko udalak lorpen hori aitortu gura dio etapa amaiera bategaz. Gainera, orain hile eta erdi auto batek harrapatu zuenetik errekuperatzen ibili da, eta Biran agertuko da berriro.

### Van Vleuten faborito

Irabazteko faborito nagusien artean Annemiek Van Vleuten herbeherearra eta Ashleigh Moolman hegoafrikarra daude. Bien artean Birako bost podium dituzte.

Parte hartuko duten 19 taldeak UCI mailakoak dira, eta euskaldun bi daude horien artean: Bizkaia-Durango eta Lointek.

## Bira WWT-an sartzeko eskaera, umore ukituagaz

Eskaera orrian mezu bitxia bidali diote UCIri



Women World Tourra sortu zutenetik, Emakumeen Bira egutegi horretan sartu guran dabiltza antolatzaileak. UCIri eskaera bera errepikatu diote 2018ko egutegirako eskaera orrian. Egoeragaz gogaituta, honako hau idatzi dute 'Lasterketaren izena' atalean, ingelesez: *WWT Race Required Again and Again XXXI. Edition.* Behin eta berriro errepikatu duten eskaera dela salatu gura dute. Egutegiari dagokionez, eguazten batean hasi eta domekan amaitzea da 2018ra begirako proposamena, Kaliforniako Itzulitik bueltan datozen txirrindulariek atseden hartzeko denbora izan dezaten.

**EMAKUMEEN BIRA: ETAPAK**

**1. Iurreta-Iurreta**
Noiz: Maiatzak 17
Luzera: 50 kilometro
Mendateak: Miota

**2. Markina-Markina**
Noiz: Maiatzak 18
Luzera: 90,8 kilometro
Mendateak: Milloi eta Urkaregi

**3. Antzuola-Antzuola**
Noiz: Maiatzak 19
Luzera: 77,6 kilometro
Mendateak: Deskarga

**4. Etxarri Aranatz - Aralarko San Migel**
Noiz: Maiatzak 20
Luzera: 58 kilometro
Mendateak: Zuarrarrate eta Aralarko San Migel

**5. Errenteria - Errenteria**
Noiz: Maiatzak 21
Luzera: 95,2 kilometro
Mendateak: Jaizkibel

# Pilotaren oraina eta iragana Zaldibarren batuko dira gaur

## Zaldua pilota taldeko 40. urteurrenaren harira mahai-inguru bat antolatu dute



Pilota taldeko gaztetxoekin argazkia aterako du leitzarrak. Julen Uribe.

**> PILOTA** J. Derteano

Zaldua Kirol Elkarteko Pilota Taldeak 40 urte egin ditu aurtengo udaberrian. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu dituzte, eta izen handiko pilotariak etorriko dira Zaldibarrera.

Gaur bertan, 19:30ean, iraganeko pilotari handiak eta gaur egungo izarrak batuko dituen mahai-inguru bat antolatu dute Zaldibarko udalbatzar aretoan. Izan zirenen taldea Jesus Garcia Ariñok —buruz buruzko txapelduna 1957an eta 1963an—, Iñaki Gorostizak —buruz buruzko txapelduna 1977an—, Pedro Garitak eta Inaxio Errandoneak osatuko dute. Gaur egungo izar bi eseriko dira eurekin: Jokin Altuna eta Jose Javier Zabaleta.

Mahai-ingurura batu aurretik, Altunak eta Zabaletak beste hitzordu bat dute pilotalekuan. Pilota taldeko gaztetxoekin argazkiak aterako dituzte.

### Partiduak eta bazkaria

Altuna eta Zabaleta maiatzaren 12an ere joango dira Zaldibarrera, baina pilotan jokatzera. Altunak Julen Martijagaz eta Zabaletak Joseba Ezkurdiagaz binakako partidua jokatuko dute. Aurretik, buruz buruko promozio txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte. Peña-Arteaga eta Esteban-Bakaikoa finalerdietatik irtengo dira protagonistak. Bazkideek hilaren 8, 9 eta 10ean eskuratu ditzakete sarrerak, 15 eurotan; partiduaren egunean bertan, denentzat 20 eurotan.

Partidu bien artean pilota taldea sortu zutenak omenduko dituzte klubeko gaztetxoen gurasoek. 1977an Alex Berasaluze, Enrike Agirrebeitia eta Ignacio Bravori esker sortu zen taldea.

Azkenik, maiatzaren 27an bazkari herrikoia egingo dute Goierriko elkartean. Txartelak Karobi eta Kizkitza tabernetan eskuratu daitezke.

# Ezkurdi balentria egiteko prest dago Euskal Ligara igotzeko

## Derio liderra lau goleko abantailagaz menderatu behar dute


Ezkurdik ez du partidurik galdu bigarren itzuli osoan.

**> FUTBOLA** J. D.

Ezkurdi futbol taldea Euskal Ligara igo daiteke zapatuan. Horretarako, balentria bat behar dute, baina lortu dezaketela konbentzituta daude. Derio liderrak bisitatuko du Tabira zapatuan, 15:30ean. Hiru puntuko aldea dago bien artean, eta lau goleko aldeagaz irabazi behar dute.

Lan gaitza da, Derio golik gutxien hartu duen taldea dela kontuan hartuta, baina erronka horri heltzeko kapaz den talderik baldin badago, hori Ezkurdi da. Jokatutako partiduen %80 lau goleko edo hortik gorako abantailagaz irabazi ditu, eta bigarren itzuli osoan ez du partidurik galdu: berdinketa bat kenduta, gainerako denak garaipenak izan dira. "Inork egitekotan, geuk egin dezakegu. Lehenengo zatian golen bat sartu eta gure ateari hutsean eusten badiogu, aukerak izango ditugu. Gaitza da, bai, baina ez ezinezkoa. Taldeak badaki lortu daitekeena, inork ez du uste ezinezkoa denik", dio baikor Julen Bedoya taldeko entrenatzaileak. "Hasieratik jo eta su irtengo gara, dugun dena emanda, ez dago besterik. Sasoi betean gaude, golak behar ditugu eta horretan saiatuko gara", aurreratu du.

### Lesioak, karga astuna

Iazko urte amaieran lesioak karga astuna bihurtu ziren Ezkurdirentzat. Hein handi batean, horren ondorioa izan zen Derion 4-0 galdu izana. Hamabi jokalarigaz bakarrik joan ziren, eta eurentzat ohikoa ez den postuetan jokatu behar izan zuten askok: aurrelariak erdilari, hegalekoak aurrelari… Hala ere, partiduaren hondarrera arte punturen bat batzeko aukerak izan zituzten. Biharko neurketa ere azken minutura arte borrokatu beharreko final bat izango da.

## ADITUAREN TXOKOA

**JUAN CARLOS PEREZ**
Areto-futbola



### Pauso bat gehiago

Federazioak beste pauso bat eman du klubei gehiago exijitzeko bidean. Iaz delegatuen gaiari heldu zion, eta gastu handiagoa ekarri zien klubei, eurak mutualizatzera behartuz. Orain monitore eta entrenatzaileen txanda da.

Datorren denboralditik aurrera, Euskal Ligan lehen mailako entrenatzaile lizentzia beharrezkoa izango dela jakinarazi diete klubei. Beraz, monitorearena ez da baliagarria izango. Apiriletik ekainera bitarteko ikastaro batean matrikulatzera animatu gintuzten. Non aurkituko dugu 1.000 euro ordaintzeko eta Bilbora eta Sestaora joanez 400 ordu horretara bideratzeko prest dagoen jenderik? Abisatu gabe eta denborarik gabe. Bada, ematen du —konfirmazio ofizial barik— neurria denboraldi batez atzeratuko dutela, prestatzeko denbora izan dezagun.

Logikoa da eta Durangaldean, esaterako, Kirolenen ematen den ikastaroa aprobetxatu ahalko dugu. Gertuago dago eta merkeagoa da. Ordainetan, eta kirol legea aplikatuz, 2018tik aurrera kategoria denetako talde guztiek monitore edo entrenatzaile titulatuak izan beharko dituztela esan dute. Argitu beharko da monitore izateak zein punturaino balioko duen, denbora kontua baita Maila Gorenean ere entrenatzaileak egon daitezela exijitu dezaten. Neurri honen ondorioz, talde asko desagertu eta egitura sendodunek baino ez diote eutsiko. Areto-futbola futbol 11gaz berdintzeko beste pauso bat da. Epe ertain-luzean kirol honen 'kalitatea' hobetuko du, baina 'kantitatea' murriztuta.



# EDERTASUN GIDA



Rosana Garcia
eta Izaskun Egia (Bihotzez)

## Ordu erdiko saioen eskaintza berezia

**Urte osorako baliagarria den eskaintza bat duzue uneotan Bihotzez gune naturalean.**
Ordu erdiko saioen eskaintza berezi bat da, maiatz amaiera bitartekoa. 15, 20 eta 30 saio aukeratu ahal dira, 12 hilabetean zehar. 15 saioko eskaintza 200 eurotan ematen dugu; 20koa 250 eurotan eta 30ekoa 300 eurotan. Beraz, saioa 10 eurotan atera ahal zaizu. Masajeak, aurpegiko tratamenduak, gorputzeko tratamenduak, estetika teknikak eta depilazioak sartzen dira.

**Hala ere, hori ez da eskaintza bakarra...**
Presoterapian, hamar saio eginez gero bi oparitzen ditugu, 120 euroren truke. Makina bat da, airez puzten doan jantzi bat lez ipintzen dena. Dreinatze linfatikoa egiten dizu, eta oso ona da zirkulaziorako, barizetarako eta likidoen erretentziorako. Tindagaien eta betileen permanenteetan ere 35 euroko eskaintza daukagu.

**Bestalde, masajeek arrakasta dute, ezta?**
Bai. Erlaxagarriek arraskata handia daukate, batez ere pindenak. Barruan haziak eta belar aromatikoak dituen tela bategaz egiten da pindena; olio esentzialekin bustitzen da, eta gero gorputz osoan ematen da. Eragina itzela da.

## ILE-APAINDEGIAK









## ESTETIKA ZENTROAK









